

ZIOEN AZALPENA:

Udalerrian lanean ari diren irabazi-asmorik gabeko Elkarteei laguntza mota asko ematen aritu izan da Udal hau. Hauek, gainera, udal ihardueran lankidetzan aritu ohi dira.

Aipatu Elkarteekin izandako harremanak kontuan hartuz, udal intereseko izaerakoak direla pentsatzera garamatza. Hala ere, izaera hori aitortzen dien ezer ere ez dago gaur egun, ezta Elkartek hauen guztien zerrenda zehaztua ere.

Bestalde, urriaren 28ko 6/1997 Foru Araua onartu da, apirilaren 20ko 1/1993ko Foru Dekretu Arautzailea (Iharduera gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duena) aldatzen duena. Aipatu Foru Arau horretan jasotako irabazien aplikazioak Udal Intereseko Elkartek gisa aldarrikatzea eskatzen du.

Herrian egon daitezkeen Udal Intereseko Elkarteen berri izateko tresnaren bat eskura izan dezagun, Udal Intereseko irabazi-asmorik gabeko Elkarteen Erregistroa sortzen da, eta modu honetan arautuko da:

LEHENENA: Udal Intereseko irabazi-asmorik gabeko Elkarteen Erregistroa sortzen da, bertan Eranskinetan jasotzen diren datuak erregistratuko dira.

BIGARRENA: Honako hauek eman dezakete Erregistroan izena:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala izena emandako irabazi-asmorik gabeko Elkartek, herrian lankidetzaren ekintzak egiten dituztenak eta hauekiko puntu bat behintzat ematea beharrezkoa da.

- *Herrian bertan kokatutako ekintzaren bat urtean zehar burutzea*
- *Ongizate sailarekin kasuen deribazio, jarraipena edo /eta koordinazioa gauzatzea.*
- *Elkarteko kideek Ordiziako parte hartze guneetan presentzia izatea.*

HIRUGARRENA: Izena eman nahi duten Elkartek Udaletxeko Erregistro Nagusian horretarako eskaera egin beharko dute, honako agiri hauek ekarritik:

* *Elkarteen Estatutuak.*

- * *Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkartearen Erregistroaren izena emanda dagoela esaten duen egiaztagiri eguneratua (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkartearen Erregistroaren Gipuzkoako Ordezkaritza Andia kalea, 13-5.ean dago)*
- * *Zuzendaritza karguak betetzen dituzten pertsonen izenak.*
- * *Helbide Soziala.*
- * *Azken hiru urteotan Udalarekin lankidetzan egindako ekintzak azalduko dituen memoria.*
- * *Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergaren dagokion epigragean Alta emana dagoela egiaztagiria eta eta azken ordainagiria.*

Aldi berean, urteko ekintzen programa eta aurrekontua eska dakieke.

Udal zerbitzuek egingo dituzte aurkeztutako Memorian zerrendatutako ekintzen emaitza eta arrakastaren gaineko txostenak eta Irabazi-asmorik gabeko Elkartearen Udalerriaren Erregistroan sartu ala ez proposamena egingo da, beraz Alkatetzaren dekretuz onartuko da.

LAUGARRENA: Udalerriaren Intereseko irabazi-asmorik gabeko Elkartearen Erregistroaren izena ematek berarekin dakar Udalerriaren Intereseko Elkartearen aldarrikapena.

BOSTGARRENA: Idazkaritza Nagusia izango da Erregistroaren ardura izango duena, izenemate-eskaeren erantzukizuna izango duena.

SEIGARRENA: Erregistroaren izenematea ezerezteko aukera era izango da, Udalerriaren lankidetzaren aurkako ekintzak egiteagatik. Ezerezte hori gauzatzeko arrazoiak azaldu beharko dira eta horretarako hasten den espedientean beste aldeari entzuteko aukera emango zaio aurrez.

ZAZPIGARRENA: Izen emandako Elkartearen ardura izango da izena emandakoan ziren elementuetatik aldaketak gertatu badira, adieraztea.

ZORTZIGARRENA: Urriaren 28ko 6/1997 Foru Araun jasotzen diren onura fiskalez gozatuko dute izen emandako Elkarteak; Foru Arau honen bidez apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzailea (Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duena) eta idazten direnak aldatzen dira, betiere araudi horretan eskatutako baldintzak betetzen badira.

Onura fiskalen aitortzea dagokion izenemateko eskaera-egunetik sartuko da indarrean, betiere egun horretan Udalerriaren Intereseko Elkartearen aldarrikapena izateko behar diren guztiak betetzen badira.

Aldi berean, Elkarateek zergekin zerikusirik ez duten beste onura batzuk izan ditzakete, Udalak ezar ditzakeenak noski.

BEDERATZIGARRENA: Araututako eskaerari irtenbide eman eta jakinarazteko araudi honetan ezartzen den GEHIENEZKO EPEA bi hilabetekoa da, behin Udal erregistro nagusian eskaera aurkezten denetik hasita, erregistrotik kentzea dagokionean izan ezik, 4/99 Legeak aldatutako 30/92 Legearen 42.5 artikulua araberaren arabera.

Aurreko atalean azpimarratutako epea amaiturik, isiltasun administratiboagatik, interesatuak bere eskaera atzera bota dela uler dezake, komenigarritzat jotzen dituen errekursoak tartejartzeko asmotan badabil behintzat.

XEDAPEN GEHIGARRIA: Arau honetan aurreikusigabeko guztian, urriaren 28ko 6/97 Foru Arauz arautuko da eta erabil daitekeen gainerako araudiez.

AZKEN XEDAPENA: Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean izango da indarrean.

Ordizia, 2014ko apirilaren 2a

ALKATEA,

IDAZKARIA,